

Joxeren inguruan elkartu giñen

Alderdi, 271. zk., 1972-01.

Eriotzak jotzen duen gizonak zergaitik iltzen den badaki ez da alperrik il.

Joxek (guretzat Joxe baita) berak leialki ikusi ala egin du bere bidea; au bait da gizabidea. Arek bezala ikusten ez dutenak ere ondo derizkioten bezala egiña dute orain arteko bidatza, eta ortan dago gizonak bere bideak aukeratzeko duen indar berezia. Naiz eta orain, eta gaurko ikuspidearekin, bide oiek ezberdiñak eta elkarrengandik askotan urruti daudela ikusi, leialki pentsa, senti eta ibiltzen diren bide guziak uste baiño elkarrengandik urbillago dagozela ere pentsatzekoa da.

Bideoak ez dire ematen diren pausoekin bakarrik egiten; ematen diren pausoak ere egiten dute, noski, ibiltarien bidea; baiña batez ere ibil-tankerak, zuzentasunak, bakoitza bereko duen leialtasunak, ematen die gizabideei eta erribideei bear duten bere zabaltasuna. Eta, beste gai askotan bezala, utsez betetako bideak geiago balio dute gizonak eta erriak ibiltzeko, utsik gabeko xuxentasun extu eta igaro-eziñak baiño.

Joxeri ez zitzaion azken-agurra egitera Euzkadiren areriorik inguratu; salatariak bezala joan ez baziren beintzat. An, elizkizunean eta gero illerrian, ikusi genituen arpegiak gure erria Joxerekin batera maite zutenak izan ziren. Lendakari Agirrek ondo zion bezala, orrelakotan egiten dira erriko plebisizitorik garbienak: nor nai joan diteke baietz esatera, nor nai etxean geratu diteke ezetz esaten. Eta oraingo plebisizito onek argi erakutsi diguna da elburu berak elkartzen duen erri bat osatzen dugula; bakoitzak beretik jokatzeke eskubidea ba du, noski, eta eskubide ori zaintzeagatik egin zuen eta egiten ari da Euzkadi bere burruka luze, neketsu eta odoltsu au; baiña denon leialtasunen bideak elburu bakar eta nagusi batera garamazki Joxeren eskutik: Euzkadi egitera.

Gertakizun onek, guziak bezala, bi arpegi ditu, eta nabarmena izan zen gure erriaren arerioak Joxeri egin zion agurra.

Muga trixte eta negargarri orren ibai-ertzean jarri ziren Joxe eta Euzkadiren lagunak zirenen izenak artzen; umeak bagiña bezala ikaratu naiean oraindik. Or egongo ziren, ziur asko, jendetzaren artean poliziak eta bese salatari paltsoak izenak eta argazkiak artzen.

Ondore asko eta aundiak ditugu Joxeren bizi eta eriotzetik ateratzekoak. Onelako geldikadak egokiak izaten dire gure arazoak sakonki begiratzen eta ikusten aalegintzeko. Baiña batez ere auxe erakutsi nai genduke gaur-emen: gure erriaren arerioaren indarrak gu zatitzeko lanean jarriak dirala aspaldi, eta gure bizkar eta gure kalte aundirako direla; axaleko, eta ain axaleko ez diren beste arazoak, denak, gu bata besteengandik alderatzeko eta urrutiratzeko darabilkizkitela. Eta guk, gure erri-bideari erantzuteko, bakoitzari bere garrantzia ematen, jerarkizatzen, ikasi bearrean gerala osorik eta betiko erri bezala galduko ez bagera. garrantziz leen denari leen tokia ematen ikasi bear dugu,

bigarrenari bigarrena, eta gero-gerokoak. Ez gera (ez dago olakorik-eta) inoiz osorik bat izango; baiña Euzkadi egingo badugu lanean elkar egiten ikasi bearke dugu.

Lan au erreza ez dela ba dakigu; erantzule ugari izango dugula ere bai; orain artekoak aitatzen jartzea eta bein-betiko oraindano auzi santua osorik zuzendu, txukundu eta erabat garbitzea eziñekoa dela ba dakigu, ordea, eta zulo ortan betiko erori eta galdu baiño gure gizabideak elkarrekin egiteak, egiten ikasteak, ematen dizkigun nekeak naiago ditugu milla aldiz.

Joxek il ondoren erakutsi digun ikasgai au ez dezagun aaztu.

Joxe ez da alperrik il; gaurko euskotarrak eta gure ondoren datozenak ezagutuko dute erakusbide onen indarra; baiña batez ere berak eta gaiñontzeko guziak, denak, eman dezaiozun Euzkadiren alde elkar lan egiteko dugun egin bear berri eta erginkoi oni bere garrantzia eta eskatzen duen biotza.